

**JARDUERA / ACTIVIDAD**

Jardueraren datu aipagarrienak / Datos más relevantes de la actividad

**2020-21 ikasturtea / Curso 2020-21 (Ikasturte amaierako datuak)**

TALDEAK			GENEROA	
MAILAK	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	EMAKUMEAK	GIZONAK
A1	2	10	9	1
A2	2	15	12	3
B1	4	30	21	9
B2	4	36	20	16
C1	4	40	29	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>16</b>	<b>131</b>	<b>91</b>	<b>40</b>

AUTOIKASKETA		GENEROA	
MAILAK	IKASLE KOPURUA	EMAKUMEAK	GIZONAK
A1 / A2	1	1	0
B1	1	1	0
B2	1	1	0
C1	13	6	7
<b>GUZTIRA</b>	<b>16</b>	<b>9</b>	<b>7</b>

TALDE BEREZIAK	GENEROA			
MAILAK	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA	EMAKUMEAK	GIZONAK
A1/A2	(Adinekoak: 2 )	16	9	7
B2/C1	Mintzamen taldea: 1	5	5	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>3</b>	<b>21</b>	<b>14</b>	<b>7</b>

**Ikasleen banaketa – Generoa / Distribución alumnado - Genero**

- **Ikasle kopurua guztira / nº total de alumnos/as ..... 168**
- **Ratioa: 8**  
**Emakumezkoak / mujeres ..... 114 (%67,86)**  
**Gizonezkoak / hombres ..... 54 (%32,14)**

• **UDAKO IKASTAROA / CURSO DE VERANO**

C1 maila ..... 3 talde ..... **24 ikasle**  
 B2 maila ..... talde bat ..... **11 ikasle**  
 B1 maila .....AUTOIKASKETA ..... **5 ikasle**

- **2021-22 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULALDIA ..... Uztailaren 1etik 16ra.**  
 PREMATICULACIÓN PARA EL CURSO 2021-22 ..... 1-16 de julio.

## EKOSCAN – INGURUMENAREN ALDEKO 12 URTEKO IBILBIDEA

- **Ikus eranskina** / Ver anexo

---

### Azken hilabetean burutu diren ekintza/ekitaldi aipagarrienak Acciones/Eventos más relevantes durante el pasado mes

- **“FUTBOLISTOK”** ..... Bakarrizketa ... **ZUHAITZ GURRUTXAGA** ..... San Agustin Kultur gunea (Ekainak 12). ..... **8 lagun** / 8 personas  
Monologo (12 de junio) ...
- **“Emakumeen kartzela”** .... **Hitzaldia** ..... **4 lagun**  
Conferencia ..... 4 personas
- **“Garaiko artea”** ..... **irteera** ..... **6 lagun**  
Salida ..... 6 personas
- **2021-22 ikasturteko publizitate kanpainarako spota** ..... **7 lagun**  
Spot para la campaña de publicidad curso 2021-22 ..... 7 personas

---

### Datorren hilabetean burutuko diren ekintza/ekitaldi aipagarrienak Acciones/Eventos más relevantes para el próximo mes

-----

## Gizarte Erantzukin Korporatiboa / Responsabilidad Social Corporativa

Tapoi bilketa ikasturte osoan. Recogida de tapones durante todo el curso.
Ekintza solidarioak: Errigora proiektuan parte hartu, gabonetako azoka solidarioa, egunkariak batu dirua biltzeko eta umeak apadrinatzeko.
Acciones solidarias: Participar en el proyecto Errigora, Mercadillo solidario de Navidad, Recogida de periodicos para obtener dinero y poder así apadrinar niños.

## OBRAK ETA KONTRATAZIOA

### OBRAS Y CONTRATACION

Gaia / Asunto.	Egoera / Estado

## SARIAK ETA ERREKONozIMENDUAK

### PREMIOS Y RECONOCIMIENTOS

#### Lortutakoak

##### Obtenidos

Zilarrezko Q-a Q de plata
Ekoscan plus
Irisgarritasun unibertsala AENOR Accesibilidad Universal AENOR
Zerbitzuen Kartaren zertifikazioa Carta de servicios certificada
5s.

#### Prestatzen

#### Preparando


#### Beste gai batzuk

#### Otros datos de interés

#### Juntaren eskaerak

#### Peticiones de la junta

DURANGO  
Udala • Ayuntamiento

 UDAL  
EUSKALTEGIA  
DURANGO  
Udala • Ayuntamiento

# DURANGOKO UDAL EUSKALTEGIA 12 URTE INGURUMENAREN ALDE LANEAN

 UDAL  
EUSKALTEGIA  
DURANGO  
Udala • Ayuntamiento

LAGUNTZA TEKNIKOA

Isladak Aholkularitza Koop. Elk. Txikia



# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b>	<b>1</b>
-------------------	----------

---

<b>GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEI EKARPENA</b>	<b>3</b>
--	----------

---

<b>LANDUTAKO INGURUMEN ARLOAK</b>	<b>5</b>
-----------------------------------	----------

---

Erosketa berdea	7
Energia	9
Hondakinak	11
Ikasle eta irakasleen sentsibilizazioa	13

# AURKEZPENA

Durangoko Euskaltegian 35 urte daramazkigu euskararen arloan lan egiten. Gure helburu nagusia Euskararen irakaskuntza eta normalizazioa bada ere, egunerokotasunean **ZERBITZU JASANGARRIA** sustatzen dugu eta duela **12 urte INGURUMEN ARLOEN HOBEKUNTZA** eragiten duten ekimenak martxan jartzen hasi ginen

---

## DURANGOKO UDAL EUSKALTEGIA

1986 urtean HABEk eta Durangoko Udalak Durangoko Udal Euskaltegia sortu zutenetik, gure zeregin nagusia helduen euskalduntzea eta euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea izan da, Euskal Herriaren hizkuntzaren eta balio historiko eta kulturalen ezagupena, onarpena eta transmisioa eginez.

Baina zerbitzu publikoa izanik, Euskaltegian beste balore batzuk sustatu nahi izan ditugu baita ere, gardentasuna, etengabeko hobekuntza eta gizartearekiko konpromisoa direlarik gure izaeraren oinarri.

---

## EKOSCAN

Ilido honetan, 2008an ingurumen arloak lantzen hasi ginen, Eusko Jaurlaritzak definitutako **EKOSCAN** Arau Ziurtagiria ezarriz, zeinak ingurumen-alderdien etengabeko hobekuntzan lanean jarraitzeko aukera eman digun. Poliki-poliki, ingurumena Euskaltegiaren kudeaketan barneratu dugu, azken hamabi urtean ingurumen arloan aurrerapauso azpimarragarriak lortu ditugularik.

---

## GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH)

2015ean Nazio Batuen Erakundeak 2030 Agenda onartu zuen, **giza garapen jasangarriaren alde lan egiteko tresna**, 2030erako mundu osoan eragina duten ingurumen, gizarte eta ekonomia arazo larriei aurre egitea helburu duena.

2030 Agendak **Garapen Jasangarrirako 17+1 Helburu zehazten ditu** Euskadin, eta hauek 169 xedeetan banatzen dira, hainbat arlotan banatzen direnak, adibidez: osasuna eta ongizatea, genero-berdintasuna, energia, lan-duina eta hazkunde ekonomikoa, ekoizpena eta kontsumo arduratsua, hizkuntza eta kultur aniztasuna...

Durangoko Udal Euskaltegian daukan misio nagusia euskararen irakaskuntza eta normalizazioa eta euskararekin lotutako kulturaren zabalkundea izanik, 18. GJHari "Hizkuntza eta Kultur aniztasuna" ekarpen zuzena egiten badiogu ere, gure jarduera eta kudeaketari esker, beste Garapen Jasangarrirako Helburu batzuei ere egiten diogu ekarpena.

---

Ondorengo dokumentu honetan, Durangoko Udal Euskaltegian azken 12 urte hauetan Ekoscan Arau Ziurtagiriaren baitan ingurumenaren arloan egin ditugun ekimenen eta lortu ditugun hobekuntzen berri ematen da. Horrez gain, ekimen horiekin Garapen Jasangarrirako zein Helbururi egin diogun ekarpena azaltzen da.

---



# GARAPEN JASANGARRI- RAKO HELBURUAK

Durangoko Udal Euskaltegiak daukan misio nagusia euskararen irakaskuntza eta normalizazioa eta euskararekin lotutako kulturaren zabalkundea izanik, 18. GJHari "Hizkuntza eta Kultur aniztasuna" egiten dio ekarpena gehienbat.

Hala ere, ingurumen arloan egiten dugun kudeaketari esker beste 7 GJHri ere egiten diogu ekarpena.

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak aho batez onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da, zeinak Garapen Jasangarrirako 17+1 Helburu (GJH) biltzen dituen Euskadi mailan eta mundu osoan aplikatu beharreko 169 xede dituen. Helburu guzti hauek garapen jasangarriaren hiru

dimentsioak uztartzen dituzte, soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa.

Durangoko Udal Euskaltegiak azken 12 urte hauetan ingurumen arloan egin dugun kudeaketari esker, **ondorengo Garapen Jasangarrirako Helburuei egiten diogu ekarpena:**



Elikadura hobetzea, pertsona guztiek elikadura osasungarria, elikagarria eta nahikoa izan dezaten, eta malnutrizio mota guztiak desagerraraztea. Horrez gain, elikagaien ekoizpenaz, nekazaritzaz eta, oro har, elikadura-sistemaz ere arduratzen da helburu hau, nekazaritza jasangarriaren eta eskala txikiko ekoizpenaren alde lan eginez.



Osasuna da GJHen arteko elkarreragin gehienak islatzen diren eremuetako bat. Helburu honen xede nagusia bizi-ohitura eta estilo osasungarriak sustatzea da, horretarako hainbat eremutan eraginez, adibidez, kalitate akustikoa eta mugikortasuna.



Energia eskuragarria, segurua, jasangarria eta modernoa eskuratzeko aukera unibertsala bermatu nahi du helburu honek. Horretarako tokiko energia-iturri garbi eta berriztagarrien erabilera sustatuz, kontsumoa arrazionalizatuz eta efizientzia energetiko handituz, horrekin batera herritarren pobrezia eta kalteberetasun energetikoa murrizten duelarik.



Lanaren ta ekonomiaren esparruarekin lotura zuzena du helburu honek, langabezia-tasa murriztea du helburu, lan-baldintzak hobetzea eta lan-produktibitatea handitzea. Ezin da pentsatu pertsonen bizi-baldintzak hobetuko direnik hazkunde ekonomiko iraunkor, inklusibo eta jasangarriari heldu gabe, enplegu produktiborik gabe eta baldintza duinetan.



Kudeaketa jasangarria eta baliabide naturalen erabilera eraginkorra sustatzea eta hondakinen sorrera murriztea. Sentsibilizazio funtsezkoa da ekoizpen- eta kontsumo-ereduetan egiturazko aldaketak egiteko, eskaria eta eskaintza ingurumen-inpaktu txikiena duten produktu eta zerbitzuetara bideratzea bilatuz.




Klima aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea. Klima aldaketaren inpaktuei aurre egiteko prestatu, emisioetan neutroa den ekonomia baten oinarriak finkatu eta trantsizio-prozesuetan ahulenak diren kolektiboak laguntzea da xede, administrazio guztiak eta gizarte eta mundu akademiko/zientifikoko eragileak inplikatz

# LANDUTAKO INGURUMEN ARLOAK

2008tik gaur egunera arte, ingurumen alderdi desberdinetan eragitea eta inpaktua gutxitzea helburu duten ekintza ugari burutu ditugu Eusko Jaurlaritzak zehaztutako Ekoscan arau ziurtagiriaren testuinguruan. Besteak beste:

- Erosketa berdea eta kontsumo arduratsua
- Energia
- Hondakinak
- Ikasleei zuzendutako sentsibilizazioa





# EROSKETA BERDEA ETA KONTSUMO ARDURATSUA

Euskaltegian, erosketak egiten ditugunean, alderdi ekonomiko eta teknikoetz gain, **ingurumen irizpideak** ere hartzen ditugu kontuan.

## ZEIN EKIMEN EGIN DITUGU EUSKALTEGIAN?

**1- Bulegoko materiala irizpide berdeekin** erosten dugu Euskaltegian: erabiltzen den materialari dagokionez, papera de kantitate handienetan erabiltzen duguna, eta 2009az geroztik euskaltegian erabiltzen dugun paper guztia birziklatua da. Horrez gain, ingurumen irizpideak dituzten bestelako materialak ere erabiltzen ditugu: paper birziklatuz egindako post-itak, material birziklagarriz egindako errotulagailu fluoreszenteak, baita behin eta berriz kargatu daitezkeen arbelerako errotulagailuak ere. Bestalde, euskaltegian erabiltzen ditugun gutun azalek ingurumen irizpideak dituzte.





**2- Kafe makinan irizpide jasangarriak** barneratu ditugu: Euskaltegiko kafe makina oso erabilia da, bai irakasle baita ikasleen aldetik ere. Kafe makinaren erabilerak sortzen duen plastikoaren sorrera handia ikusirik, ekimen desberdinak jarri ditugu martxan urte hauetan, adibidez, makinan edalontzia ez emateko aukera jarri, norberak bere edalontzia erabiltzeko aukera duelarik.

Horrez gain, 2013az geroztik bidezko merkataritzako kafea eskaintzen da makinan eta honen kontsumoa sustatzen dugu.

**3- Garbiketarako produktu arriskutsuen** kontsumoa jaisteko ahalegina egin dugu, hauen ordeztu ingurumenaren ikuspegitik egokiagoak diren garbiketa produktuen erabilera lehenetsiz. Euskaltegian ez ezik, ekimen hau Udaleko egoitza guztietara zabaltzeko pausuak eman dira baita ere.

**4- Bertako produktu ekologikoez** osatutako otarreak banatu ditugu: Lehen aldiz 2015eko gabonetako txapelketan banatu genituen Errigorako otarreak sari moduan. Orduz geroztik, Errigorako saskiaren bitartekari gara ikasleentzako, eskaeraren kudeaketa eta banaketa bideratzen dugularik.

## ZEIN HOBEKUNTZA LORTU DITUGU ZENBAKITAN?

	<b>PAPERA</b> Erabiltzen dugun <b>paper guztia, %100</b> , paper-birziklatua da.
	<b>BIDEZKO MERKATARITZAKO KAFAA</b> Bidezko merkataritzako kafearen kontsumoak gora egin du: 2013an <b>188 kafe</b> izan ziren bidezko merkataritzakoak (%5) eta 2020an aldiz <b>636 kafe</b> (%25). <i>makinako kafea hartu behar duzunean BIDEZKOA MERKATARITZAKO KAFAA aukeratu!</i>
	<b>BERTAKO PRODUKTU EKOLOGIKOEN OTARREAK</b> 2015ean Errigorako <b>11 otarre</b> banatu ziren Euskaltegiaren bidez eta 2016, <b>15 otarre</b> eta urtez-urte gora egiten jarraitzen dugu.
	<b>EROSKETAK</b> Bulego materialean egiten den gastuaren <b>%17</b> zen irizpide berdeekin 2015ean, eta gaur egun, aldiz <b>%38</b> a.

## ZEIN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURURI EGITEN DIOGU EKARPENA?



2. GOSERIK EZ

8. LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA

12. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA

# ENERGIA



Urte hauetan zehar Udal Euskaltegian **energia elektrikoaren kontsumoa murrizteko** jarduerak jarri ditugu martxan, adibidez, LED lanpara eraginkorragoak jarri, argia pizteko presentzia-detektagailuak,...

Nahiz eta azken urtetan ikasketa metodologia eta baliabideen eguneraketak teknologia berrien erabilera (arbela digitalak) ekarri duen, elektrikoaren kontsumoa aurrezten jarraitzen dugu.


## ZEIN EKIMEN EGIN DITUGU EUSKALTEGIAN?

- 1-** Geletako **argiztapena sektoretan banandu** da, beharrezkoak diren argiak soilik pizteko aukera emanez.
- 2-** Geletako lanpara fluoreszente guztiak **LED lanparez** ordeztu dira, hauek kontsumo txikiagoa eta bizitza luzeagoa daukatelarik. Igogailuko lanparak ere LED lanparengatik ordeztu dira, eta gainera, pizte tenporizadore bat jarri da.
- 3-** Komunetan **presentzia-detektagailuak** instalatu dira, argiak presentziaren edo inguruko argitasunaren arabera piztu eta itzaltzeko.
- 4-** Euskaltegiko **sarrerako atearen mekanismoa** aldatu dugu, irekiera automatikoa duen atea jarri. Honen bidez, atea irekita uztea eragozten da eta eraikinaren tenperatura egonkor mantentzen da.
- 5-** Erositako azken **fotokopiagailuak ECO MODE** konfigurazioa dauka, energia kontsumoa eta honekin lotutako CO<sub>2</sub> isuriak murrizten direlarik.
- 6-** Euskaltegian arbela digitalen erabilera txertatu da eta hauetan **stand-by funtzioa** modu jarraian erabiltzen da, energia aurrezteko.
- 7-** Berbagunea geroz eta gehiago erabiltzen den espazioa izanik (hitzaldiak direla, bilerak, formakuntza, etb.) eta eremua handia dela kontuan hartuz, panelak jarri dira hauen bidez eremuak itxi eta beroa hobeto mantentzeko helburuz.

## ZEIN HOBEKUNTZA LORTU DITUGU ZENBAKITAN?

### ENERGIA KONTSUMOA ETA BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURIAK

2008-2020 urteen artean energia elektrikoaren kontsumo orokorrak **%23,3a** egin du **behera** (kWh), eta honekin lotuta, Berotegi efektua eragiten duten CO<sub>2</sub> isuriak **%21,8an** jaitsi dira.




### ENERGIAREN ERABILERAREN ERAGINKORTASUNA

Eraikinaren azalera kontuan hartuz, m<sup>2</sup> bakoitzeko **126,71 kWh** kontsumitu ziren 2008an eta 2020an aldiz, **58,7 kWh**. Beraz, energia elektrikoa geroz eta modu eraginkorragoan kontsumitzen dela esan daiteke.

Energia kontsumoaren murrizketa eta erabilera eraginkorrean ezinbestekoa izan da ikasle, zein irakasleen inplikazioa.

MILA ESKER !

## ZEIN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURURI EGITEN DIOGU EKARPENA?



7. ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA

13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA



# HONDAKINAK

Udal Euskaltegian lanean jarraitzen dugu sortzen ditugun **hondakinen sorrera murrizteko**, baita **hondakinen berrerabilpena** bultzatzen ere.

Jarduera nagusia irakaskuntza izanik, paperaren erabilera murriztean indar berezia egin dugu azken urteetan.

## ZEIN EKIMEN EGIN DITUGU EUSKALTEGIAN?

**1-** Kafe makinako plastikozko edalontzien erabilera gutxitzeko helburuarekin, makinan edalontzia ez emateko aukera jarri zen eta irakasleen artean kristalezko edalontzi eta katiluak banatu, a norberak bere edalontzia erabili dezan animatuz.

**2-** Garbiketarako produktuen erabilera, eta beraz, ontzien sorrera gutxitzeko pausuak eman ditugu, garbiketa lanak egiten dituen enpresarekin hau lortzeko hausnarketa eginez.

**3-** Euskaltegiaren sarreran **aterkiak gordetzeko** plastikozko zorrotxoak erabiltzen ziren. Sistema aldatu egin dugu eta aterki-ontzi berriak dagoeneko ez da plastikorik erabiltzen.

**4-** Euskaltegia ikaskuntza zentroa izanik, papera beharrezko baliabide nagusia da. Nahiz eta horrela izan, Euskaltegian esfortzu berezia egin dugu honen kontsumoa murrizteko.

**Administrazio lanetan paper kontsumoa murriztu dugu:** matrikulazioa web orriaren bidez egiteko aukera ematen da, bulegoetako ordenagailu guztietan dokumentuak bi aldetik inprimatzeko konfiguraturuta daude, bilera-aktak,

deialdiak eta bestelako dokumentuak korreo elektronikoz bidaltzen dira inprimatu beharrean edo web orrian zintzilikatu, hainbat dokumentu (erosketa zerrenda, azterketak...) plastifikatu eta berrerabili egiten dira,...

**Ikasleei begirako paper kontsumoa ere murriztuz** joan gara urtez urte: Ikasgaiak formatu digitalean banatzen dizkiegu edo klaseetan zenbait irakurgai berrerabili egiten dira.

**5-** Paperaren murrizketarekin batera **tonerraren kontsumoa murriztu** egiten dugu baita ere.



**6-** 2013az geroztik, Euskaltegian ikasle eta irakasleen artean **urtean bi azoka** egiten ditugu, azoka hauen helburua **materialen berrerabilpena** bultzatzea delarik. Lortzen den dirua egoera larrian dauden pertsonen laguntzeko erabiltzen da: janaria eta bestelako produktuak erosiz eta JAED elkarteari emanez (arroza, dilistak, olioak, pasta, esnea, pix-ohialak, etab.) edo azokan soberan geratzen diren arropak Caritasi ematen.

## ZEIN HOBEKUNTZA LORTU DITUGU ZENBAKITAN?



### HONDAKINEN SORRERA

2008-2020 urteen artean **%67** hondakin gutxiago sortu dira Udal Euskaltegian. Datu hau erabiltzaileen (euskaltegiko langileak, ikasleak eta udako taldeak) arabera aztertzen badugu, erabiltzaile bakoitzak **%61** hondakin gutxiago sortu ditu.



### PAPER KONTSUMOA

2008-2020 urteen artean **%77** paper gutxiago kontsumitu dugu Udal Euskaltegian. Datu hau erabiltzaileen (euskaltegiko langileak, ikasleak eta udako taldeak) arabera aztertzen badugu, erabiltzaile bakoitzak ia **%82** paper gutxiago erabili du baita ere.



### AZOKA SOLIDARIOAREN EKARPENA


2015ean martxan jarri zenetik ia **2.000 €** lortu dira azoken bidez, eta beharra duten pertsonentzako janaria eta bestelako produktuak erostera bideratu direnak.

## ZEIN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURURI EGITEN DIOGU EKARPENA?



2. GOSERIK EZ

12. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA



# IKASLE ETA IRAKASLEEN SENTSIBILIZAZIOA

Martxan jarri ditugun ingurumen hobekuntzarako ezarritako neurriak eraginkorrak izan daitezzen **formakuntza eta sentsibilizazio** eskaini diegu urte guzti hauetan ikasle eta irakasleei, baita beraien egunerokotasunean aplikatzeko ere, sentsibilizazioa kasu praktikoek bidez, inguruko ekimenen berri emanez, iritzia elkar banatzeko medioak jarritz...


## ZEIN EKIMEN EGIN DITUGU EUSKALTEGIAN?

- 1- Urte guzti hauetan zehar **ingurumen arlo desberdinei buruzko hainbat hitzaldi** eman ditugu euskaltegiko bertako ikasle eta irakasleei bideratuak. Hitzaldiak ondorengo gaien ingurukoak izan dira: Klima aldaketa, energia elektrikoa, kontsumo arduratsua, hondakinen kudeaketa, finantza etikoa, mugikortasuna eta zarata.

Hitzaldi hauetan alderdi teorikoa lantzeaz gain, ikasleekin alderdi praktikoa landu dugu, eta eztabaida guneak ireki dira baita ere. Horrekin batera udalerrian, eskualdean, zein beste herri batzuetan egiten diren ekimen edo jardunbide egokien berri eman dugu baita ere.

- 2- Urtero landu diren gaiak **“Mariren kobazuloa” blogean** argitaratu ditugu post moduan eta blogaren bitartez eztabaida eta iritzitrukea egon da ikasleen aldetik, zenbait urtetan arrakasta handia izan duelarik.
- 3- Bestelako ekimenak ere egin ditugu ikasleak sentsibilizatzeko helburuarekin, hala nola, Euskaltegiko eraikineko etengailuetan, aparatu elektronikoetan, eta abarretan energia elektrikoaren kontsumo arduratsua egiteko **pegatinak jartzea**, ikasleen **mugikortasun moduan ezagutzeko inkesta** egitea, Euskaltegiko sarreran **bizikletentzako aparkalekua jartzea** (kotxean etorri beharrean, bizikleta erabil dezaten animautz) edo **Marisatsa Elkartera** (kontsumitzaileen elkartera) **bisita** egitea bertan egiten duten lana ezagutzeko.

## ZEIN HOBEKUNTZA LORTU DITUGU ZENBAKITAN?



### INGURUMEN SENTSIBILIZAZIOA

Ingurumenarekin lotura duten **7 arlo** desberdinen inguruko hitzaldiak antolatu dira: klima aldaketa, energia aurrezpena, hondakinen kudeaketa eta murrizpena, kontsumo arduratsua, bakan etikoa, mugikortasuna eta zarata.



### SENTSIBILIZATUTAKO IKASLEAK

Urte hauetan Euskaltegian burutu diren hitzaldi desberdinetan **55 pertsonak** hartu dute parte batez beste, guztira **400 pertsona** inguru.

## ZEIN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURURI EGITEN DIOGU EKARPENA?



**3. OSASUNA ETA ONGIZATEA**

**7. ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA**

**12. EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA**

**13. KLIMAREN ALDEKO EKINTZA**

DURANGO  
Udala • Ayuntamiento



 UDAL  
EUSKALTEGIA  
DURANGO  
Udala • Ayuntamiento